

# ITZIAR: BIOLENTZIA POLITIKOAREN IKUSPEGI ETNOGRAFIKO

Joseba Zulaika

**Oharra:** Idazlan hau Itziarri buruz osatu dudan etnografia baten laburpena da. Liburu hori ingelesez argitaratuko da eta, euskeraz ateratzea ezinezko denez, hutsune hori zuzentzekotan idatzi dut laburpen hau. Don Julio Caro Baroja maisu haundiari atseginez dedikatzen diot. H. F. Guggenheim Fundazioaren laguntza eskertzen da.

## ITZIARREN NATIBO ETA ETNOGRAFO

Sei hilketa politiko eman ziren Itziarren 1975 eta 1980 tartean. Alderdi batek krimenak bezala ikusi izan ditu hilketa hauek; beste alderdiak ekintza iraultzaile bezala. Itziarriko biolentziaren ikuspegi etnografiko honen tesisa hau da: hilketa politiko hoiek aztertze modurik egokiena kultura barnean duten esanahi-testuingurua deskribatzea dala. Azterketa kultural baten zeregina hau da: ekintza biolento hoiaren ikuspena eta interpretapena euskal abertzaleek ze testuingurutan ematen duten eskaini. Ikuspegi honetan biolentzia beraren jarraipena fenomenoaren onhartzen dutenen interpretapen hoietan oinarritzen da batik-bat.

Antropologiaren tradizioa izan da fenomenu zabalak egoera txikietan Leku-zea, bariabile eta esperientzia maila desberdinak harreman orokor batetan azter ahal izateko. Kasu honetan Itziar da toki txiki hori. Etnografia hau, beraz, biolentzia politikoak Itziarren dituen esanahi kulturaletaz aritzen da. Zer esaniz ez, Itziar biolentzia horren muestra edo mundu txiki bat besterik ez da. Prozesu orokorraren analisiak ikuspegi historiko batetan finkatu beharra du. Historia politiko eta ekonomiko orokor hori etnografia honen gain dago. Antropologia kultural baten ikuspuntutik hau interesatzen zaigu: prozesu politiko eta ekonomiko hauek diferentzia kultural eta herri-identitate berezi baten argumentoetan itzultzen dituztela euskaldunek. Analisia hau contenido kultural oinarritzko hoietan kokatzen da.

Biolentziaren etnografia batek ez du lehenik izan behar burruka horren zergatien eta reakzioen ikerketa faktual bat. Lehenik etnografia batek deskribatu behar du, tragedia Homeriko batetan bezala, burrukalarri hoiek eta beren audientzia zein kondizioetan elkar sortzen diren, eta azken batetan nola elkarrentzat problema bilakatzen diren. Bestalde, representazio trajiko batetan ez bezala, Itziarriko gertakizunak egitazkoak dira. Gertakizun hauen deskribapenak egiten du azterketa hau etnografia bat. Lehen “bertsoak atera” egiten zen zerbait xelebrea edo patetikoa gertatzen zenean. Bertsoak ateratze horren

antzeko diskurtsoa ikusten dut nik dela etnografia egitea: melodia edo deskribapen baten barruan atrapaturik, berez giza-esperientzian konprendi-ezinekoa edo esan-ezinekoa dena bertso edo etnografia bilakatzen dira. Era honetan, antropologia “poema bat irakurtzea bezala da” (Geertz).

Poema trajiko bat hutsune edo errore trajiko batetan oinharritzen da. Bizio edo krimen bulgar batek ez du interesarik trajedia batetarako. Euskal biolentzia ere ikus daiteke krimen bulgar bat bezela, edo alderantziz giza-esperientzian ebitaezinezko diren erroreek sortzen duten akzio-reakzio kate bat bezala. Etnografikoki inporta dana hau da: ekintzaile biolentoek, eta hauek onhartzten dituzten beren komunitateek, nola ikusten duten heuren gerra. Itziarko kasuan diferentzia kategorikoa egiten da kriminal baten eta ETako baten tartean. Biak maila berdinean jartzea biolentzia politiko horren autore eta komunitatearen premisak ez rekonozitzea da.

Ni neu Itziartarra naiz, antropologo eta herritar biak batera. Antropologia funtsean etnografiaren egitea giza-talde baten baitan izaki, nere partizipazioa bi mailetan estudio honen kondizio nagusi bat da. Egoera honek ezin dit permiti nere informanteengan balio sistema edo ikuspuntuak ezartzea neuk antropologo bezela erabat diferente izan ditzazkedanak. Konparaketa bat egin daiteke giza-erhaiketa (burua etsai bati moztea, adibidez) beharkizun ritual bat den gizarteekin. Antropologoak aztertuko du buru-moztearen instituzioa eta lekutuko du gizarte horren sistema kultural eta ritualaren baitan: buru-moztea agertuko da kultura horren funtzionamendu orokorrean behar-beharrezko den fenomeno bezala. Baina azken batetan, antropologoaren ikuspuntu pertsonaletik, buru-moztearen rito guztia “heuren” barbaritate bat da: berak bere gizartean ez du holako munstrokeriarik, eta hilketa arbitrario hori erabat mezipreziagarri eta ulert-ezineko zaio. Natiboak hain salbaje izaki, antropologoak berak bere gizartearentzak egoera ez-salbaje bat ateratzen du.

Nik ezin dut nere informante eta neure gizatearen balio sistemen tartean halako diferentziarik jarri. Itziarko hilketak neri ere pertenezitzen zaizkit, nere herriak, senide tartekoek, eaguek partizipatu edo onhartu egin dituztelako. Gainera nere gazte deboran ETAn sartzea izan zen Itziarko gazteoi eskatzen zitzaigun eginkizun heroikoa. Eguneroko gertakizun bat izan da Itziarren biolentzia hori, eta berez balio bat euskal gizartearen sektore funtsezko batek onhartua, eta era berean nahieztako ondorio mingarrien kausantea. Hilketa arbitrarioaren munstrokeria etzait ba neri gertatzen arazo analitiko bat bezala bakarrik, baizik eta neure gizartearen eta neure kulturaren balio eta ekintza-bide bezela.

Hilketari “heuren” ohitura aberrante, edo norberaren gizartearen egunero gertakizun bezala begiratzeak, baditu implikazio teoriko seinagarriak. Wittgensteinek Frazerren nozio majiko eta erlijiosoei egin zien kritika har genezake paralelo teoriko bat bezela. Wittgensteinek zion sinesmen eta praktika erlijioso hoiek ez zirela “erruak”, teoria bat bezala presentatzen zirenean ezik. Egia

deitzen dioguna hipotesiarik egokiena besterik ez da, eta seinalatu zuen nola herri primitiboen “erruak” hipotesiak besterik ez zirela, “berez justifikagarriak agertu ziren garai hartan”. Hilketa erlijiosoetaz Frazerrek zuen ikuspegia arbuia-tuz, Wittgensteinek komentatu zuen: “Dena den, zerk egiten du sakrifizio humanoa zerbait sakon eta siniestro? Era honetan inpresionatzen gaituena biktimaren sufrimendua besterik ez al da? Gaisotasun mota guztiek era berdi-neko sufrimendua dakarkigute eta ez digute halako inpresiorik ematen. Ez, ekintza beraren historia jakitetik ez da argi agertzen aspektu sakon eta siniestro hori, baizik eta guk ezartzen diogu hori geure baitako esperientziatik”. Berak zion “ekintza modu baten inguruak” inpresionatzen gaituela, eta galdetu zuen: “Nor bait hila izaten ikusten dudanean —inpresionatzen nauena ikusten dudana hori beste gabe da, ala hori nor bait hiltzen ari direnaren hipotesiarekin batera dator?” Antropologoaren “hipotesia” implizitoak bihur ditzake estudiantzen ari den gizartearen erahilketa ritualak akto “arbitrario” eta “abominagarri”. Euskal biolentzia politikoa aztertzean, gure hipotesia implizitoak biur ditzazke erahilke-ta hoiek “krimen” bulgar batzuk edo ekintza iraultzaile. Ikuspegi etnografiko egitazko batek ez du zergatik definizio bat ala bestea har beharrik. Aurreiritzi-rik gabe antropologoak natibo heuren dituzten hipotesia kulturalak aurki behar ditu. Zentzu honetan azken urteotako euskal krimen politikoak ere premisa kultural eta historiko zenbaiten baitan emanak izan dira. Hoi en deskribapena da etnografiaren egitazko lana. Hau da, modelo kultural eta prozesu historiko zenbaiten arabera onartu den egia politiko hipotetiko horren testuingurua aztertzea.

Ikuspegi orokorra du berezitasun ikerketa antropologikoak, kulturaren alder-di eta maila desberdinak sistema unitario batetan izpilatzea. Biolentzia politikoaren arazoa estudiantzekoan ere kulturaren barneko ikuspegi global hori derrigorrezkoa da. Itziarko kasutik begiratuaz, azken hogeitabost urteotan herri-ko zenbait gaztek —burruka klandestinoan aritu direnek, ala txibatoek— kondensatu dituzte herriko kontradikzio nagusiak. ETAko gazteek izan dira batik-bat pertsona ideala (heroikoa), gizarte euskalduna, edo politika askatzailea zer izan behar duten markatu dutenak. ETAkoek eskeinitako definizio politiko eta imajina pertsonalek erabaki dituzte neurririk haundienean ezker abertzalearen joerak. Garai batetan sorginek hartu zituzten heuren gain animalien imajinak eta egin zituzten anti-kristau ritualak, dirudienez harriskuan zeuden kultura tradizionalako zenbait kontenidoen defentsan. Esan daiteke konparazioz gaur egungo ETAkoek agertzen dituztela era berean euskal gizartearen kontradikzio kultural eta politiko nagusiak. Ezker abertzalearen joera politikoak —“politika” zer den definizio bertatik hasita— ikuspegi kultural-historiko orokor baten baitan bakarrik dute zentzua. Euskal biolentzia politikoaz aritzea euskal kultura tradizionalaren aldaketa beharrak sortzen dituen kontradikzio funtsezkoetaz aritzea da.

Herritar beraren hipotesia eta interpretazio kulturalak ahal bezain hurbile-tik, zehazki, detailaturik, eta beren baitan duten esanahiarekin jaso behar dira.

Antropologoari ez dagokio natiboaren ohiturak edo razionalitatea bere eritzien arabera “interpretatzea”. Edozein kulturak du bere razionalitatea edo moralitatea. Antropologoak ezin dio inponi kultura konkretu bati konportatzeko edo pentsatzeko kriterio unibertsal batzuk, hauek ez baidira esistitzen, egia edozein edo razionalitate edozein “hipotetiko” baita. Zentzu honetan, kultura batek edozein erailketa konberti dezake derrigorrezko beharkizun ritual, edo ekintza iraultzaile laudagarri, edo gerra santu bat. Eta definizio kultural hauek gizarte barruan obligaziozko bilakatzen dira. Kanpotik erabat arrazoi-gabeko edo etika-gabeko den ekintza berbera, barrutik arrazoizkoen eta etikoen bezala ikusia izan daiteke.

Baina bestalde, gure kasuan, euskal gizartearen baitan gu ere natiboak gara, ez estudiosoak bakarrik. Eta hemen sortzen da, azterketa kultural bat zeure kulturari aplikatzean, paradoja bat. Zeurea ez den kultura bat aztertzean egoera baten kontradikzio edo barbaritatea kontenpla zenezake —zenbat eta barbaroago orduan eta interesgarriago seguruenik—, baina azken batetan basakeria hori guztia “heurena” da. Denok bizi gara kultura baten baitan, eta zeure kulturaren barbaritatea kontenplatzen duzunean, ordea, gai analitiko izatetik aparte zeure eguneroko arazo eta sinesmen eta kausa gertatzen zaizu. Bitxikeria hoiek (sorginak, martireak, heroek, terroristak) estudiatu bakarrik ez, zeure bizitzan bizitzera behartzen zaitu zeure kulturak. Orduan antropologo distantziatuak esan lezake: “ba realitatea holakoxea da eta kito”. Baina natiboak esan nahi lezake: “ba nik beste realitate bat nahi dut”. Eta hor gaude gu, alde batetik geure kulturaren hipotesiak eta ekintzak fideltasunez jaso eta interpreta beharrean, eta bestaldetik kultura horren ondorio paradoxiko eta autodestruktiboak eragotz nahian.

Etnografoa eta natiboa guruzatzen diren lekuan sor behar du antropologia kritiko batek. Honen zeregina hau litzateke: hipotesia kultural eta ekintza-modelo tradizionalak sakonean aztertu, eta realitate berrietarako adaptazioan zenbateraino lagungarri ala oztopo diren argitu. Joera kritiko batek ez du ukatzen kultura tradizionalaren afirmazio bat izatea ere. Zeregin antropologiko hau biolentzia politikoari aplikatu ezkerro, alde batetik burruka horren barnetikako esanahia fideltasunez ezagutzea esijitzen zaigu, eta bestaldetik, burruka horren kondizionamendu historiko eta kulturalak ikusiz gero, alternatiba egoikien posibilitateak apuntatzea.

## HERRIKO KONDAIRA

Deskribapen historiko bat nahitaezko gertatzen da Itziarren azken urteotan eman den biolentzia politikoa ulertzeko. Itziarren bizi diren jenerazioen historia bat egin ezkerro, oraingo biolentziara zuzenki daramaten prozesuak ikus daitezke.

Lehenik historia politiko bat dago. Gerra aurretik dagoeneko PNV-k mugimendu abertzale bortitz bat piztu zuen Itziarren Batzoki bat ireki zen, eta

honen inguruan antzerki eta ekintza kultural ugari eman zen. Sei baserriarrek kronista bezela idazten zuten orduko Argia aldizkarian. Kronika hauek garbi azaltzen dute momentuko abertzaletasun euforia. Republikaren erlijioarenganako postura zela-ta, Karlista eta PNV-koen artean etendura bat gertatu zen herrian. Apaiz karlistaren influentziapean PNV-ren abertzaletasuna onhartu ez zuen kronista bat “espia” bezela ikusia izan zen.

Gerra zibilaren tragedia dago gero. Gazte batzuek PNV eta Sozialistekin burukatu zuten Republikaren alde. Gazte gehienek soldadu bezela joan ziren militarrek dei egin zietenean. Hildakoek hogeitamarretik gora kontatzen dira, kasi danak soldaduak (Itziarrek milla biztanle inguru du).

Herri barrutik begiraturaz ekintza militarrek urrun gelditzen dira. Gerraren herri barruko esperientzia lokala da gauzarik ikaragarriena. Familia onak, guttiz elizkoiak, gauza normaltzat zedukaten beste bandokoeri “denuntzia” sartzea, nahiz eta jakin heriotzea suposa zezakeela salhatuentzat. Gorroto-historia sinesgaitzak, baina gerrako giroan erabat “normalak” zirenak.

Gerra zibilak eskaintzen du polarizazio eskema baten paradigma. “Hoiek” eta “gu”. Elkarren artean mediazorik ezin. Dikotomia totala. Hil ala biziko konfrontazioa. Gerra bukatuz gero ere herri mailan polarizazioak jarraitu egiten du. Gerra eskema honetan erabat normal gertatzen dira bestela inolaz onhartuko ez liraken konportaerak.

Gerra ondorenean gosia dago. Eskubide politiko guztiak zanpatuak aurkitzen dira. Inolako ekintza sozial edo kulturalik ez. Baina PNV edo Sozialistekin burukatu zuten baserrietan belaunaldi berriek gerrako historiak entzuten dituzte, gurasoek diotenez hitzegin behar ez diren historiak, baina isildu ere ezin direnak.

1955ean, apaiz eredu baten eraginaz, gazte talde batek benetako konbertsio erlijiosoa izaten du. Donostian edukitako ejerjizio espiritual batzuk izan ziren okasioa. Zortzikote talde elizkoi honek erabaki zuen kristau bizitza oso seriocki hartzea: maldiziorik ez, dantza loturik ez, bizitza sakramentala ugaritu, herri barruan apostoladutza egin, etabar. Heuren nortasunaz jabetu eta herria aldatzeko asmotan, apaiz langile horrekin bilera bereziak egiten hasi ziren. “Baserri Gaztedi” deitzen zen mugimenduan sartu ziren (Acción Catolica-ren euskal bertsioa zen hau). Konzepto nagusia “militantzia” zen, eta helburua “ekintzak” egitea.

Apaiz berri bat etorri zen Itziarra 1958an. Honek ikuspegi politikoagoa zuen. Lehenengo aldiz Itziarko gazteek entzun zuten kristau izatea eta politika egitea ez zirela elkarren kontrako. Bien bitartean mugimendu kultural batek indarra hartu zuen herrian: antzerki, baserriarrentzat gaueskolak, hitzaldi, etabar, antolatu ziren. Eta hauekin batera gauza konprometatuago zirudien zerbait ere iritsi zen: E.G.I., eusko alderdiaren gaztedia. Elizkizun eta kultur ekintzekin batera, represio politikoaren aurka burukatzea ere beharkizun moral

bezala ikusi zuten Itziarko gazteek. Hauetako bat, Joxe Mari, 1960ko udan atxilotua, torturatua, eta asteetan kartzelatua egon zen, 339 apaizen idatzi zuten eskutitz famoso hura Arantzazuko gau-peregrinazioan zabaltzekotan E.G.I.n zebilelako. Ondorioz gazte politizatu hauen apaiz kontseilaria herritik bidalia izan zen.

Egoera hartan txibatoaren sorrera gertatzen da herrian. Apaiz elizkoiarekin bilerak egiten hasi zirenean, herriko alkateak taldeko bati, Karlosi, eraso zion ia zertan aritzen ziren bilera izkutu haietan; edozein bilera sospetxagarri zen. Karlista familiakoa zen gazte hau. Bileretara joatea utzi egin zuen Karlosek. Geroxeago apaiz hau beste herri batetara aldatu zen; obispoak rutinaz agintzen zituen traslado hoietakoren bat besterik ez zen, baina zurrumurrua zabaldu zen Karlosen txibatadak kausatu zuela. Bigarren apaiza kastigoz bidalia izan zenean (apaizen eskutitzerako firmak biltzen ibilia zelako) orduan ere Karlosi leporatu zitzaion, nahiz eta berak zerikusirik ez izan. Berdin gertatu zen E.G.I.ko militantea erori zenean. Polarizazio bat zen beharrezko, eta hortarako txibato bat. Baina Karlos gehienik mindu zuena hau izan zen: bere lagunik intimoenak burruka klandestinoan sartu zirela, eta ez ziotela berari ezer esan. Honek lagun arteko konportaera guztiak hautsi egiten zituela iruditu zitzaion. Laister goardia zibilekin zebilen. Bere txibato papela asumitu egin zuen.

Karlos, txibato papela onhartu zuena, eta Martin, alderdi abertzalearen buru bezala herrian ikusten zena, biak ama berdinarean bularretan titia hartutakoak ziren Martinen ama hil egin zelarik. Historio mitiko bat benetan.

Apaizek gaztedi honetan izan zuten influentzia azpimarratzean, historia erlijioso bat ere ari gara egiten. Elizaren eraginik gabe ez dago entenitzerik Itziarren zer gertatu den. 1960ko erorketen ondoren, gurasoek kontrol haundia jarri zuten beren semeen gain. Beste apaiz berri bat etorri zen, Urkola: hau ez zen ekintzaile haundia, baina bai pedagogo ona eta pentsalari kritikoa. Urkola bizitza sakramentalak kritikatzeko hasi zen; erlijioa bere elementu majikoetatik garbitu egin nahi zuen. Urkolak berak apaizgoa utzi zuen geroago eta liburu bat idatzi apaizgo sakramentuari buruz. Itziarren sakramentuari buruz diskusioak sortu ziren apaiz kontserbadore eta eliztar batzuen tartean.

Halaz ere, de-sakramentalizazioarekin batera bizitza osoaren re-sakramentalizazio zela beharrezko predikatzen zuen Urkolak. “Herri Gaztedi”-ren baitan ere hori zen dotrina.

1968tik aurrera dator Itziarren “Herri Gaztedi”ren momenturik garaiena. Gazte zen Herri Gaztediren aldizkaria, eta horren azterketa beharrezko da garai hartan Itziarko gazteek ze ideia sozial eta politikoko zituzten jakiteko. Eleizaren esku egonik, Herri Gaztedik giro erlijioso, sakrifiziozko, herriaren alde bizitza emateko ideologia lantzen zuen batik-bat. Herri Gaztedi gazteen konzienziarako plataforma bezala ikusten zen. Hemendik jende ugari ETArako preparatua irten zen. Itziarko kasuan ere seminaristek eta apaizek izan zuten parte nagusia Herri Gaztediren martxa erabakitzen eta bultzatzen.

1973an Herri Gaztedi amaitu egin zen, represio giroak eta barneko desorientazioak suntsiturik. Itziar mailan gazte ekintzaileek bi opzio zituzten: edo talde txiki teorizaketan aritzen ziren hoietakoren batetan afiliatu, edo ETAn sartu. Herri Gaztedin zeuden lau gaztek ETako komando bat osatzea erabaki zuten. Beste ekintza ugari egin ondoren, komando hau Berzadiren hilketarekin harrapatu zuten. Ikusten den bezala, hasiera batetan EGI eta elizaren arteko harremanak ezin hestuagoak ziren, eta hamabost urte geroago Elizaren infleuntzia, Herri Gaztediren zehar, berriro dezisiboa izan zen ETako militanteak sortzen. ETAn sartu zirenean gazte hauen mentalitatea 1975an orduko ekintzaile tipikoena zen. Heurekin hitzegin ezker, idealismoa eta abenturerismoa agertzen da ugari. Herriko gazterik argienak ziren hauek, 16-18 urte besterik ez zutenak. Ez ziren inolaz ere delinkuenteak. Berzadiren hilketa herriko jende gehienek ez zuen onhartu, baina halaz ere ez dira inoiz gaizkileak bezela kontsideratuak izan herrian. Alderantziz, herria asko mugitu zen heuren amnistiaren alde, eta kartzelatik irten ondoren pertsonaia publiko ezagun bihurtu ziren Euskadi mailan.

Badago baita ere historia ekonomiko bat Itziarko biolentzia politikoa ententzeko beharrezkoa dena. Lehen-lehenik baserriaren ezintasun ekonomikoa. 1962-1972 dekadaren bakarrak, Itziar ta Lasturren 30% baserri hustu ziren. Zifra honek beste gabe adierazten du zenbaiterainoko aldakuntza sozio-ekonomikoa sufritu duen gizarte tradizionalak. Baserritarrekin hitzegin besterik ez dago aldakuntza honen “biolentzia” zein dramatikoak izan den sumatzeko. Botatoko, eroritako, edo hustutako baserri bakoitzak egundoko biolentzia sinbolikoa suposatzen dio baserri bizibide tradizionalari, baserritarrekin elkarriketetan garbi agertzen denez.

Gainera 1972an Itziarko 20 baserri botoak edo salduak izan ziren poligono industrial eta planta nuklear bat eraikitzeko. Poligono industrialak Itziar beraren erdi-erdian milloi metro kuadrado lur berdindu zituen industriarako. Planta nuklearrerato baserriak Udaletxetik izkutuan erosi ziren; gero geldituak izan ziren hortarako lanak, eta azkenik Foru Aldundiak erosi zituen lur hoiak. Hau guztia kanpotikako kapitalismorik traketsenaren inbasio bezela sumatu zuen herriko gaztedi politizatuak. Aberriaren defentsa, kultura eta bizibide tradizionalaren defentsa, baserriaren defentsa, kausa orokor berdin bat gertatzen zen diktadura eta kapitalismoaren aurka. ETAn sartu ziren gazteen ikuspegian, prozesu historiko eta ekonomiko hauek suposatzen zuten biolentzia funtsezkoaren aurka armaz burukatzea egiteko iraultzaile nahitaezko bat besterik ez zen.

## **BASERRIKO BIZIBIDEA**

Goian seinalatutako prozesu historiko hoiaren arabera, edozein gizartetan biolentzia ematea normaltzat eduki genezake. Baina Euskal Herrian ematen

den biolentziak baditu bestalde euskal karakteristika bereziak. Azterketa kultural bat eskatzen du honek.

Kultura tradizionalaren estudioak baserri mundua oinharri derrigorrezkoa du. Honek ez du esan nahi azken urteotako euskal biolentzia baserritarrek gidatu eta indartu dutela gehienik. Dato soziologikoak agertuko lukete ETako gazteak ez direla izan baserritarrak portzentaia txiki batetan besterik. Soziologikoki ezik, kulturalki begiratu behar zaio baserriak euskal biolentzian duen eraginari. Hau da, baserria bizibide berezi bat bezela, eta baserria euskal gizarte tradizionalaren eredu eta imajina sinboliko bezela. Baserria eta ETaren arteko harremana nola ulertu behar litzateken Itziarko zenbait kasuekin argi daiteke. Burruka klandestinoan Itziarren lehenengo erori zena mekaniko zen ofizioz, beraz ez baserritarra. Baina jaiotzaz, familiaz, edukazioz, lagunarteaz, eta herri sendimenduaz baserritarra zen erabat, eta ez kaletarra. Bere politikan sartzeko erabakian dezisibo izan zen bere familiak PNVrekin burukatu zuela gerra denboran, eta bere fraile maisuek Deban eskola urteetan euskeraz egitearren kastigatu egiten zutela.

Itziarko seminarista batek eskaini zidan beste kasu bat ETA eta baserriaren arteko harremana nola enteni behar den ikusteko. Seminarioan bi talde bereiz zitezkeen bere garaian: kaletarrak eta baserritarrak. Bera Parisa 1965ean joan zenean, ETAk Gipuzkoan zituen dozenerdi liberatuak seminararioan bizi ziren, eta denak baserri seminaristak ziren. Hauek ere ez ziren baserritarrak okupazioz, baina bai familia edukazioz eta beren, herrietako kulturaz.

Beste kasu bat oraindik. Itziarren komando ezagun bat egon zen 1975-76ean ETako ekintzarik gehienak egin zituenak. Laukote honen ofizioak estudiante, tallerrean langile, eta tabernan zerbitzari ziren. Halaz ere hauetako bi baserrian jaio eta haziak ziren, eta beste bien gurasoak ere baserritarrak ziren.

Kasu hauek agertzen dute burruka klandestinoak ez dutela gehienbat baserrian bizi diren gazteak egiten. Baserriaren itxitura instituzionalak eragozpen gerta daitezke partizipazio hortarako. Baserri giroan jaio eta hazitakoa, eta gero baserritik urrundua bizitzera behartua dagoena, hori da aberriaren askatasunaz interesatzen dena. Seminarioan, fabrikan, edo zentro urbano batetan dagoen “baserritarra” konturatzen da inor baino hobeto bere kultura tradizionalaren estrainamenduaz eta alienazioaz, eta iraultzarako deiak oihartzun errazago bat aurkitzen dute haren baitan. Oraindik orain industrializatutako herrietan ematen da hau batik-bat. Baserri munduan enkulturatu eta baserritik aparte lana egin eta bizi dena konturatzen da baserri gizarte tradizionalaren beherapen erabatekoaz. Iraultzak esanahi guztiz konkretua har lezake egoera horretan: guztia gal dadin baino lehen, euskal gizarte bertakoa recuperatu.

Hizkuntza eta imajinen mailan ere baserriak garrantzi handia du. Euskal nazionalismoa hizkuntzan oinharritu da batik-bat. Hizkuntzaren eta kultura tradizionalaren gordeleku klasikotzat ematen da baserria. Euskera ikasi nahi duten edo euskal tradizioak ezagutu nahi dituztenek baserrira jotzen dute



sarritan. Imajina mailan ETAKo askok amets egiten dute burruka amaitu ondoren baserri batetara erretiratzea: baserriak euskal gizarte berpiztu eta autoktono baten imajina eskaintzen du.

Baserriak instituzio orokor bat bezala funtzionatzen du. Bariabile ekologiko, ekonomiko, okupaziozko, familiar, kultural etabarrek sistema orokor bat osatzen dute, eta bariabile horietako bakoitza orokortasun horren baitan parte bilakatzen da. Baserri etxea bertan bizi direnen identitate referentzia nagusi bihurtzen da. Baserriko familia mota familia nuklearra baino zabalagoa da; familiakoek elkarren artean “gure” dimentsio batetaz loturik daude. Baserri instituzioaren erorpenarekin batera referentzia personal eta sozial funtsezko zirenak aldaketa radikal bat eskatzen dute. Gizartearen ideiaia baserri mentalidatean etxe indibidualetan oinarrizten da; estruktura sozial jerarkizatu baten konzepturik apenas dagoen. Jerarkia, autoridadea, kolektibitatea, etabar, baserri gizarte estruktura batetan formatzen dira. Baserri mentalitate batetaz koloratutako ideia hauek ETA eta euskal ezker abertzalearen posturak ententitzeko orduan signifikatibo izan daitezke. “Gure” kolektibitatean sartzen dira baita ere lurra, aberria, euskera, ETA. “Geuria da ta geuria...” Kanpotik inposatua sumatzen den kapitalismo eta podere politiko baten aurka, bertako lur komunala eta ideologia igualitarioa oposatzen da.

## AKTIBISTA BERTSOLARI BEZALA

Euskal kultura tradizionalen zenbait modelo aurki daitezke euskal biolentzia politikoari aplikagarri direnak. Jokuak eta ehiza adibidez. Bertsolaritza ikusiko dugu hemen. Hortarako kultura oralaren premisak aztertu behar dira lehenik, eta horren baitan bertsolariak hartzen duen inportantzia textu krea-tzaile eta ekintza modelo bezela. Sujetoa ez da berdina textu oral edo idatzian: hitzezko harremanak interakzio pertsonal bat esijitzen du. Notiziak tradizional-ki ahoz-aho emanak izan dira. Itziariko jenerazio zaharrek notizia idatziak ere normalean oralki irakurtzen dituzte, hau da, Leitzen dutena hitz bihurtuaz beren ezpainetan. Eleizan otoi-tza ere hitzezko errezoekin egin izan ohi da. Bigarren Gerra mundial arte Itziarren ez zegoen irrati eta egunkaririk. Hitzaren komunikabide nagusia. Hitzak personala behar du, ahoz-ahokoa. Hitzaren egia literala aseguratzen ez bada, komunikazio prozesu guztia arriskuan dago. Egitasun literala funtsezko da. Norberaren presentzia edo konozimendu personalak bakarrik garantizatzen du azkenik egitasun hori. Norberak ikusia, entzuna, eta “omen” esana bi diskurtso mota dira; “omen” entzundakoaz esalea ez da responsabilizatzen.

Gizonaren definizioan “hitza” konzepto nagusi gertatzen da. Benetako gizona hitzeko gizona da. Hitza kontratu bezela hartzen da. Hitza barruko izatearen izpilu da baita ere. Azken batetan hitza ez da komunikabide bat

bakarrik, hitza bera mentsaje nagusia baizik: hitzaren literaltasuna, emandako hitzari eustea. Hitzaren ideologia bat ematen da.

Bertsolariak dira hitzaren maisuak. Plaza batetan bertsolariak taldearen hitza esaten du. Bertsolariak eskaintzen dizkio publikoari bere realitate kultural eta politikoaren deskribapen eta definizio nagusiak. Natura eta gizarteko bizitzatik hartzen ditu bere imajinak. Bere ekintza moduak justifikazio bakar bat du: euskeraren ezagupenak ematen dion kreatibitate artistikoa neurri formal zorrotz batzuen baitan testu oral bat sortzeko. Artegitza hori dala-ta bertsoa textuinguru egokia da bizitzako egoera konkretuak deskribatzeko.

Lekuonaren estudio aintzindariari jarraiki, “inprobisazioa” izan da bertso-gintzaren karakteristikarik seinalagarriena. Ikuspegi literario kritiko batetik inprobisazioa ez da hain garrantzizko, “folk artearen konzeptu romantiko bat”, Hauserrek zion bezala. Guretzat signifikatibo dena, halaz ere, herrieran begietan inprobisazio bat-bateko horri ematen zaion zentralidadea da: jendearentzat horixe da lehenik bertso-gintza, eta hori gabe ez legoke bertsolaririk. Bertso hoiek berak, plazan bat-batean boteak izan ordez, norberaren gelako bakartadean idatziak balira, erabat esanahi desberdina izango lukete. Bertsoaren eskribatzea, entzulearen perspektibatik, inportantzia gabeko akzidente bat besterik ez da. Kanta edo entzun beharrean bertsoa irakurri egiten bada, hitza eta bertso-musika banatu egiten dira, textua eta hitzeko ematea, bertsolaria eta publikoa, begia eta belarria. Bertsolari eta publikoaren arteko harremana galdu egin da irakurketa pribatuan. Inprobisazioak esan nahi du hain zuzen textua ezin dela fijatu: inoiz ez bertso berdina plazan, bestela ez da bertsoa.

Inprobisazioak denboraren redundantzia eliminatzen du. Denbora sobranterik ez du bertsolariak. Idazleak alderantziz nahi beste denbora du bere textua egiteko. Bertsolaria bat-bateko momentuari emana dago. Denbora “gabezia” horrek bertsoa instanteko textu behin-batekoa egiten du. Eskritore batek ez bezala, bertsolariak ez du behar izenbururik edo gairik kantatzeko; ez du erabaki beharrik non hasi eta non bukatu bere lana: hori guztia instanteko momentuak ematen dio, bertsoa bera instante horri erantzun momentuzko bat besterik ez baita. Bertso-gintzan bertsoaren textua bera baino bertsolariaren abilezia gehiago begiratzen da. “Zer” esaten duen baino “nola” esaten duen da inportanteago.

Bertsolariaren bertsoa osatzeko modua bere buruan “atzekoz aurrera” da: hasi aurretik nola amaitu behar duen jakin behar du. “Amaia da hasiera” esaldiak adierazten du teknika hori.

Textu finkatzearen arazoa memoria aldetik ere ikus daiteke. Bertsolariak ez du bertso bat memorizatzen. Bertsolariak memorian izan behar duena euskera osoa da: hitz rimatuak, esaldi mota guztiak, gramatika posibilitate ugariak. Memoria orokor honetan bertsolariak hizkuntzaren posibilitetasun guztiak gogoan izan behar ditu, baina textu konkretu batetan fijatu gabeak.

Bertsolariaren textugintza imajinen arteko harremanetan finkatzen da, ez ideien arteko loturetan, Lekuonak aspaldi adierazi zuen bezala. Honek dionez imajinen arteko mugimendu hori lau karakteriztika hauetan agertzen da: 1. elipsiaren ugaritasunean; 2. lotura retoriko-gramatikalen ausentzian; 3. ordena logiko-kronologikoaren ardura gabezia; 4. imajinen eta gaiaren arteko harreman logiko edo koerentziarik ezean. Berezitasun hauek koplaren baten egiteko eran garbi ikus daitezke: koplaren batek lehenik naturalezako imajina bat eta bigarrenez bizitza sozialeko egoera bat juxtafesionatzen ditu: koplak berak bi imajinak lotzen ditu melodia eta rimaren textuinguru bakarrean. Imajinen arteko sintaxia ez da gramatikala, koplaren formak ematen duena baizik. Hontarako beharrezko gertatzen da elipsia (gramatikala, kronologikoa, logikoa, retorikoa). Syntaxis eliptiko honek sortzen duen narratiba imajinen zerrenda bat da. Bertsolariaren arrazoia imajinen arteko lotura espresibo horretan oinarritua dago, ez lotura logiko--ausaletan. Bertsolariari ez zaio atsegin gai bezela "arrazoi" bat ematea, ze orduan berak arrazoi baten gainean beste arrazoi bat osatu behar baitu, eta hau zaila da bat-batean inprobisatzeko. Bertsolariaren arrazoia imajinen arteko juxtafesionazio batek emango du, ez ideien arteko kateak. Kausalitatea hemen elipsia da.

Zer argi dezaiguke bertsolariaren modeloak euskal biolentzia politikoa aztertzerakoan? Bertsolariak modelo kultural berezi bezala propositzen dira hemen. Kulturak sortzen dituen harreman orokorren baitan, interesgarri zaiguna bertsolariak hainbat baloratzen dituen jendeak bere joera politikotik aktibistaren alde egotea da. Hau da, ekintzaren subjektu bezela, eta testu-kreatze bezela, ETAKo aktibista eta bertsolaria konparatzen baditugu, irabazten al dugu konprensiorekin bertsolariaren kulturak zergatik ETAKo konportatza politikoa ondo ikusiko duen? Biolentzia politikoa berez ez da ezer "ahozkoa" edo "idatzia". Baina biolentzia bera ere ikus daiteke testu propio baten sortzaile bezela. Eta biolentzia horren berezitasun textualuak aztertzerakoan gertatzen da argigarri bertsolariaren textugintza oralaren modeloa.

Bertsolariak bere bat-bateko inprobisazioarekin harrizten du publikoa. "Zer" esaten duen baino bereziago du "nola" esaten duen. ETAKo tipiko ekintzan ere bat-batekotasuna eta ustegabetasuna funtsezko dira. Ahozko kulturaren berezitasun zenbait (literaltasuna, hitza kontratu bezala, espresioaren ekonomia) biolentzia politikoa ententzeko ere argigarri dira.

Hitza eta ekintzaren artean badago harreman antagoniko interesgarri bat. Hitzak definitzen du gizona, baina ikonikoki: gizonak barruan daramana eta hitzez azaltzen duena elkarren izpilu izan behar dute. Bestela hitz hori faltua da, "gezurria". Hitzak benetakoa izateko ekintzarekin lotua joan behar du. Zentzu honetan hitza eta ekintza diferente dira; ekintza falta denean harriskua dago bat hitz usteletan gelditzea. ETAKo tipiko politikan ere hitza eta ekintzaren artean diferentzia zabal bat dago. Ekintzak markatzen du pausoa; ekintza bera da "esentzia" barrukoa.

Bertsolariaren egiteko modua sujeto indibidualaren trebetasun eta parte-hartze personalean oinarritzen da. Aktibista bakartiak ere modelo hau jarraitzen du. Honek ere bere egia partizipazio pertsonal batekin bakarrrik adierazten du. “Zer” egiten ari den jakiteko, “nola” egiten ari den ikusi behar da, bere publikoak ondo dakien bezala. Bertsolariaren inprobisazioa bezela, postura kritiko batetatik politika modu hau ere “folk artegintzaren nozio romantiko” batekin konpara daiteke. Publikoaren begietan ordea, bai bertsolariarekin eta bai ETArekin, egiteko modu bat-bateko horrek, suerte hutsarekin jokatu, esanahi berezia du.

Bertoaren “idaztea” gauza akzidental bat da. Bertsolariaren modeloko politika moduan, idaztearen testu fijazio hori politiko formalaren programak lirake. Bertsolariak bere partizipatze personalarekin plazaren aurrean esan behar du bere egia. ETako politiko bertsolariak ere bai. Ezin da finkatu bat-bateko emanaldia. “Egitazko” gauza momentuko ekintza da, eta horrekin konparaturik teoria politikoak, programak, testu idatziak, etabar, apendiz hutsak, dira. Uztapidek behin esan zidanez, bertso esbribitzeak zituen arazoetaz mintzatu ondoren, bertsolariaren hitzak “haizeak eramaten ditu”. Txikik ere fusilatu zuten aurreko goizean bere hilobira ez joateko zion, zeren bera “askatasun haizea” baizen.

Bertsoak “arrazoi” bat osatzen du imajinen arteko harremanaz, ez ideien artekoaz. Harreman hauek ez dira “kausalak”: ez dira “zergatik?”, “...zeren eta” kate batetan elkar lotzen. Imajinen arteko lotura bertso baten barruan juxtaposizio bat besterik ez da. Elipsia beharrezko gertatzen da, diskontinuidade bat egon behar du harreman espresibo bat sor dadin. Euskal biolentzia politikoa ere diskontinuidade ritual baten sortzaile bezala ikus daiteke. Argumentuaren aria, “arrazoiak”, ez da harreman kausal batzuetan oinarritzen. Ez du zentzurik galdetzea “zergatik” euskerak irauin behar duen, edo Euskadik askatasuna behar duen: edozein erantzunetan ezingo litzateke kabitu, edozein erantzun kausal (“zeren eta...”) ezin izan arrazoi guztia. Biolentzia politikoa estudiantean “arrazoiak” bilatzen dira tipikoki: “¿Cuáles son las causas de la espiral de violencia política en Euskadi?”. Biolentziaren “kausak” bila nahi izatea fenomeno bera ulertzeko argibide baino oztopo gehiago gerta daiteke. Pentsamendu militarista da hain zuzen pentsamendu kausala: burruka justifikatzeko beti kausa edo errazoi bat behar da. Gerra teoriak ere pentsamendu mota horretan emanak daude, kontzeptu nagusiak izanik “jotzea”, “kausak”, “jomugak”, “indarra”, “oposizio perfektuak”, etabar. Pentsamendu honetan gertakizun fisikoa eta horren funtsioa dira oinharri, eta ez gertakizunaren ideia eta esanahia. Konexio logiko-kausalak alde batera utzi gabe ez dago bertso onik. Era berean biolentzia politikoa aztertzean esplikazio kausal bat ematea fenomeno ez ulertzea da. Textuinguru ritual batetan medio eta helburuen artean ez dago lotura implizito bat. Euskal biolentzia politikoa entenitzeko orduan ere beharrezko egiten da suposatzea ekintza eta ekintzaren helburuaren artean dagoen harremana ez dala kausala, baizik eta sinbolikoa edo rituala lehenik.

## “BAINA HORI NOLA LEIKE?”

Larunbata goiz batetan, 1975ko udan, Itziarren etxean nengoela zenbait emakume negarrez entzun nituen kalean. Kaleruntz abiatu nintzelarik eskaile-retan ama eserita aurkitu nuen; zuri eta etxeraino igotzeko indarrrik gabea zegoen. Begi izutuaz eta sabela eskuekin babesten zuela, arnasa hestuaz esan zidan, “Karlos autobusean hil dute”. Karlos zen herriko txibato ofiziala. Autobus bat zuen eta larunbatero Itziarko etxeko andreak Debara eramaten zituen beren erosketak egitera. Goiz hartan, etxera itzultzen zirelarik, neure amaren aurrean, bi ETako mutil asientoetatik altxa ziren, karreteratik irten erazi zioten, eta “Hi txakur bat haiz!” oikatu ondoren tiroz hil zuten bertan bere anaia arreba, eta emakume ikaratuen begi aurrean. Karraxika autobusa utzi ondoren emakumeak kotxeetan ekarri zituzten herrira. Amari etxera lagundu ondoren kaleratu nintzenez, emakume talde batek inguratu nindun, eta aurpegi ikaratuaz galdetu zidaten, “Baina hori nola leike?”. Ni mutu gelditu nintzen. Heuren begiak neure gain zulatzen sentitzen nituen erantzun baten zai. Mutu jarraitu nuen nik bakarrik utzi ninduten arte.

“Baina hori nola leike?”. Ez zen galdera bat. Espresa-ezinekoa zen.

Baina hori nola leike? Paradoxa baten aurrez izaturik egiten den galdera retorikoa da hori. Karlosen hilketak sortu zuen harridura hori autobusean zijoazen emakumeengan. Berazadiren hilketak, Itziarko gazteek egina gizona herriko baserri abandonatu batetan gorderik eduki ondoren, sektore abertzale zabalago bat biolentziaren ondoren paradoxikoekin konfrontatu zuen era berean.

Biolentziak sortzen duen ezinbesteko kontradikzioa eguneroko bizitzan indarrez ager daiteke. Adibidez, Itziarren neuk ikusia, ETako heroea eta goardia zibila herriko kanposantuan elkarren ondoan ehortziak egon beharra, eta ETako zenbait jarraitzaileen amorrua heriotz ondorengo kidesasun horrenatik: heriotzeak ere ezin rekonzilia etsaiak. Baina hori nola leike?

Beste kasua nere Itziarko lagun bati gertatua: ETako bere lagun hilarekin gau osoa ametsetan pasatu, hari galderak egiten eta elkarrizketa bizian; pozik esnatu goizean; gero, laguna hila zegoela eta guztia amets bat besterik ez zela konturatzean, berebiziko haserre eta inpotentzia sentitu behar. Amets batetan ere ezin kabitu kontradikzio esan-ezinekoa.

Edo Karlos hil zutenean Martinengan sortu zuen reakzioa. Karlos eta Martin biak Karlosen amaren bularrez haziak izan ziren. Esne-anaia izaki, gaztetan lagunik intimoenak ziren. Gero Martin burruka klandestinoan Karlosi ezer esan gabe sartu zenean, hau guztiz mindua sentitu zen gauzak beragandik sekreto gorde zizkiolako. Ordurako Karlosi txibato zurrumurru faltsoak leporatu zizkioten herrian. Polarizazioa derrigorrezko izanik, Martini heroe papela eman zion herriak, eta Karlosi txibatoarena. Biak asumitu zuten heuren egitekoa, eta Karlos txibato bihurtu zen bezala, Martinek talde sindikalak formatu

zituen inguruko herrietan eta ETaren miresle inkondizionala jarraitu zuen beti. ETak Karlos hil zuenean, ordea, nahiz eta herrian bere etsai politikoa izan, Martinek ezin izan zuen onhartu hilketa hura. Bere iritzian Karlos gizajo bat zen; berak Karlos inork baino hobeto ezagutzen zuela zion, eta heriotzea merezi ahal izateko bezainbat txarkeriarik ezin egin zezakeela. Polarizazio historia batek ere ezin zuen esplikatatu hilketa hura.

“Baina hori nola leike?” Itziarko emakumeen galdera honen aurrez erantzun bat ematera entseia nindekeen. Orduan ez nuen erantzunik, eta ez dut orain ere. Polarizazio historia batek, heroismo ipuin batek, amets batek, sinesmen batek, edo kulturaren baitan ikasitako ekintza modelo hoiek apuntatu egiten dute biolentzia hori zer den edo nondik hartzen duen bere esanahia. Textuinguru hauek erantzun bat apuntatzen badute ere, galderak ez du berez erantzunik. Bukatzeko esan genezake euskaldunoi biolentzia politikoak erakusten dizkigula batik-bat kulturak inponitzen dituen egoera paradoxikoak. Zentzu horretan biolentzia hori bizitzeko manera bat da, destrukziozko eta kreaziozko ekintza bat, erantzunik ez duen galdera sortzen duena, “Baina hori nola leike?”

Zorroaga, 1986.ko Otsailean